





## 82 Musika Hamabostaldia Quincena Musical

Donostia  
San Sebastián  
Abuztua 1-27  
Agosto 2021

### Antton Valverde

Donostian jaio zen 1943an. Antton Calverdek gaztetan musika klasikoko ikasketak egin zituen eta 60ko hamarkadan abeslari eta konpositore ibilbidea hasi zuen betiere bere enpresari jardunarekin uztartuz. Artea-enpresa dualtasunak hainbat diziplinetako artistak ezagutzea ahalbidetu zion eta musikari, pintore, idazle, eskultorez... osatutako familia giroaren eragin handia jaso zuen. Euskal poeta nagusiak musikatzeko gustu eta estilo bereziari esker hainbat disko grabatu ditu gitarraz eta gehienbat pianoaz lagunduta.

Hainbat single kaleratu ondoren, 'Oskarbi' taldeko kide izan zen eta "Eskutari" diskoan parte hartu zuen. Jarraian, Xabier Lete eta Julen Lekuonarekin "Bertso zaharrak" argitaratu zuen, iragan garaietako hainbat bertso berreskuratzen zituen lana. Bi urte igarotakoan Xabier Leterekin "Txirritaren bertsoak" kaleratu zuen, bertsolaritza oinarri duen diskoa. Ordurako jada kaleratua zuen "Antton Valverde" bakarkako lehen lana. Hurrengo diskoa "Lauaxeta" poetari eskainitakoa izan zen. 1986an "Urte giroak ene begian" kaleratu zuen, eta 11 urte beranduago "Larogeitamazazpi". 2007an "Hamabi amodio kanta" argitaratu zuen eta 2013an "3L - Lizardi, Lauaxeta, Lete" egin duen Anjel Lertxundirekin batera. Lertxundirekin 2020an zuzeneko DVD bat editatu zuen, "Hitzak Hots" izenekoa, 5 emakume poeta euskaldun musikatzuz: Itxaro Borda, Jule Goikoetxea, Tere Irastortza, Miren Agur Meabe eta Arantxa Urretabizkaia. 2020an "Gaua, ausentziaren itzala" kaleratu du.

Nacido en Donostia en 1943, Antton Valverde realizó de joven estudios de música clásica y en la década de los 60 comenzó su carrera musical como cantante y compositor que siempre ha compaginado con la actividad empresarial. Esta dualidad arte-empresa le permitió conocer a numerosos artistas de diversas disciplinas y recibir numerosas influencias en un entorno familiar repleto de músicos, pintores, escritores, escultores... Un peculiar gusto y estilo a la hora de musicalizar a los principales poetas vascos le ha llevado a grabar numerosos discos acompañado a la guitarra y sobre todo al piano.

Tras publicar varios singles, fue uno de los miembros del grupo 'Oskarbi' y participó en el disco "Eskutari". A continuación, publica con Xabier Lete y Julen Lekuona "Bertso zaharrak", trabajo que recuperaba bertsos de una época pasada. A los dos años publica con Xabier Lete un disco que tenía como base el bertsolarismo "Txirritaren bertsoak". Para entonces ya había sacado a la luz su primer disco en solitario, "Antton Valverde". El siguiente disco estuvo dedicado a "Lauaxeta". En 1986 publica "Urte giroak ene begian", y 11 años más tarde "Larogeitamazazpi". En 2007 publica "Hamabi amodio kanta", y en 2013 vendría "3L - Lizardi, Lauaxeta, Lete" junto a Anjel Lertxundi, con el que editaría en 2020 un DVD musicalizando en concierto a 5 poetas vascas con el título de "Hitzak Hots": Itxaro Borda, Jule Goikoetxea, Tere Irastortza, Miren Agur Meabe y Arantxa Urretabizkaia. En 2020 ha visto la luz "Gaua, ausentziaren itzala".